**Prentsa-oharra**

**Bi erakundeak lankidetzan ari dira Gipuzkoan Gaixotasun Aurreratuak dituzten Pertsonei Osoko Arreta eskaintzeko Programa garatzen**

# Matia Fundazioak eta “la Caixako” Gizarte Ekintzak 1.300 gaixo aurreraturi baino gehiagori eskaintzen diete laguntza Gipuzkoan

- **Gaixotasun Aurreratuak dituzten Pertsonei Osoko Arreta eskaintzeko "La Caixako" Gizarte Ekintzaren Programak arreta psikologiko, sozial eta espiritual espezializatua eskaintzen die gaixotasun aurreratua duten pertsonei eta euren familiei. 29 talderen bidez Espainia osoan jarduten duen proiektu aitzindaria da eta dagoeneko 100.000 pertsona baino gehiago artatu ditu.**

- **Gipuzkoan, Programa hori Matia Fundazioko profesional-talde baten bidez garatzen da. Orain arte, lurraldeko 1.310 gaixori eta 2.248 senideri eskaini die arreta Matia Fundazioko Ricardo Bermingham Ospitalearen, Donostia Ospitalearen, Mendaroko Ospitalearen eta Donostiako, Mendaroko eta Bidasoako etxez etxeko ospitaleratze-zerbitzuen bidez.**

- **Bizitzaren bukaeran, arreta psikosoziala jasotzen duten gaixo aurreratuen gehiengo nabarmenak aldartea eta sintoma psikologikoak hobetzen dituzte, hobeki egokitzen dira gaixotasunera, eta bakezkoak egiten dituzte euren buruekin.**

**Donostia, 2013ko apirilaren 3a.-** Gaixotasun Aurreratua duten Pertsonei Osoko Arreta eskaintzeko “La Caixaren” Gizarte Ekintzaren Programa egoera horretan dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko asmoz jaio zen. Hain zuzen, gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonei arreta eskaintzeko gaur egungo sistema osatzeko asmoa du Programak. Horrela, osoko arreta eskaini nahi zaie, gaixoen nahiz familien alderdi psikosozialak (arreta emozionala, soziala eta espirituala), dolu-laguntza eta zainketa aringarrietako profesionalentzako laguntza ere kontuan hartuta.

Gipuzkoan Matia Fundazioko profesional-talde bat arduratzen da Programa garatzeaz. Zehazki, Matia Fundazioaren Ricardo Bermingham Ospitalean, Donostia Ospitalean, Mendaroko Ospitalean eta Donostiako, Mendaroko eta Bidasoako etxez etxeko ospitaleratze-zerbitzuan ari diren bost psikologok osatzen dute taldea.

Programaren lau urteko ibilbidean, Gipuzkoako 1.310 gaixo eta 2.248 senide artatu dira, eta parte hartu duten pertsonek balorazio altu-altua egin dute. Adibidez, dolu-taldeetan parte hartzen duten senideek **10etik 9,4ko nota ematen diote programari**. Zifra horren atzean, estatistikako datuez baino askoz harago doazen balorazio kualitatiboak daude: pertsonek sentitzen dute laguntza jasotzen dutela, ulertu egiten dituztela, egoera ulertzen duen ingurunean hartzen dituztela. Osasun-taldeen batez besteko gogobetetze-maila 8,6koa da, eta eskainitako prestakuntzari, berriz, 9,5eko nota ematen diote.

Sendagile-taldeekin lankidetza estuan, psikologoek gaixoen tratamendua osatzen dute, gaixotasunak dakartzan alderdi emozional, sozial eta espiritualak zainduz. Horri esker, osoko tratamendua eskaintzen zaio pertsonari, eta haren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea lortzen da.

Gaixotasun Aurreratuak dituzten Pertsonei Osoko Arreta eskaintzeko Programaren zerbitzua hiru esparruren inguruan egituratzen da:

- Gaixo eta senideei gaixoaldian zehar arreta eskaintzea, ospitalean, etxean eta kanpo-kontsultetan.
- Doluaren jarraipena egiteko, banakako nahiz taldekako arreta.
- Profesional-taldeentzako euskarri emozionala eta prestakuntza.
- Arreta eskaintzen zaien pertsonentzako laguntza, boluntarioen jarduerari esker.

**Diziplina anitzeko taldeen arreta-eredua**

Irabazi-asmorik gabeko erakundeei (ospitaleei loturiko fundazioei eta hirugarren sektoreko erakundeei) zuzenduriko lehiaketa baten bidez, “la Caixaren” Gizarte Ekintzak laguntza psikosozialerako 29 talde hautatu eta prestatu zituen. 2009ko urtarriletik aurrera, talde horiek arduratzen dira Espainia osoan Gaixotasun Aurreratua duten pertsonei Osoko Arreta eskaintzeko Programa garatzeaz, eta dagoeneko **40.424 gaixo eta 61.170 senide hartu dituzte Espainia osoan**.

Ospitalean eta ingurune soziosanitarioan ez ezik, etxean ere aritzen dira taldeak; diziplina anitzeko taldeak dira eta psikologoak, gizarte-langileak, erizainak eta boluntarioak biltzen dituzte.

Taldeen esku-hartzeari esker, guztiz alda daiteke gaixoaren eta familiaren esperientzia, hiltzea bizitzaren gailurra ere izan daitekeela uler dezaten. Zentzu horretan, **gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonei laguntza eskainiz**, desintegrazioaren eta etengabeko mehatxuaren pean dagoen bizipen pasibo batetik, norberaren existentziaren baieztapenera, baloraziora eta burutzapenera iragaten da.

Programa lehen urteen balantzea egiteko "la Caixaren" Gizarte Ekintzak Estatuan sustatutako azterketan ikusi da **tratamendu psikologiko, emozional eta espirituala guztiz eraginkorra dela zainketa aringarrietan**, eta gaixoen aldartea, larritasuna, ondoeza, oinazea eta bizitzaren zentzua hobetzea dakarrela.

Informazio gehiago:

**"La Caixaren" Gizarte Ekintzako Komunikazio Departamentua**
Marina Teixidó: 93 404 40 92 / 608 09 90 23 / mteixido@fundaciolacaixa.es
http://www.lacaixa.es/obrasocial
**Prentsa-areto multimedia**
http://prensa.lacaixa.es/obrasocial

**Matia Fundazioko prentsa-kabinetea**
Silvia Turné: 616 11 25 80/ Silvia.turne@matiafundazioa.net

**Nota de prensa**

**Ambas entidades colaboran en el desarrollo del Programa para la Atención Integral a Personas con Enfermedades Avanzadas en Gipuzkoa**

# Matia Fundazioa y la Obra Social “la Caixa” prestan apoyo a más de 1.300 enfermos avanzados en Gipuzkoa

- **El Programa para la Atención Integral a Personas con Enfermedades Avanzadas de la Obra Social "la Caixa" ofrece atención psicológica, social y espiritual especializada a las personas que tienen una enfermedad avanzada y a sus familias. Se trata de un proyecto pionero que actúa en toda España a través de 29 equipos y que ya ha atendido a más de 100.000 personas.**

- **En Gipuzkoa el Programa se desarrolla a través de un equipo de profesionales de Matia Fundazioa, que hasta el momento ha atendido a 1.310 pacientes y 2.248 familiares del territorio a través del Hospital Ricardo Bermingham de Matia Fundazioa, el Hospital Donostia, el Hospital de Mendaro y los servicios de hospitalización a domicilio de Donostia, Mendaro y Bidasoa.**

- **Al final de la vida, una significativa mayoría de pacientes con enfermedades avanzadas que reciben atención psicosocial experimentan una mejora del estado de ánimo y de sus síntomas psicológicos, una mayor adaptación a su enfermedad, y una sensación de paz y reconciliación.**

**Donostia-San Sebastián, 3 de abril de 2013.-** El Programa para la Atención Integral a Personas con Enfermedades Avanzadas de la Obra Social ”la Caixa” nació con el objetivo de mejorar la calidad de vida de las personas que se encuentran en dicha situación. El Programa pretende complementar el modelo actual de atención a personas con enfermedades avanzadas para lograr una atención integral que tenga en cuenta los aspectos psicosociales de pacientes y familias (atención emocional, social y espiritual), el acompañamiento en el duelo y el apoyo a los profesionales de cuidados paliativos.

En Gipuzkoa desarrolla el Programa un equipo de profesionales de Matia Fundazioa, integrado por cinco psicólogos, que actúan en el Hospital Ricardo Bermingham de Matia Fundazioa, el Hospital Donostia, el Hospital de Mendaro y en los servicios de hospitalización a domicilio de Donostia, Mendaro y Bidasoa.

En los cuatro años de vigencia el Programa ha atendido a **1.310 pacientes y 2.248 familiares en Gipuzkoa** y la valoración de las personas que han participado es especialmente alta. Por ejemplo, los familiares que participan en **los grupos de duelo valoran el programa con un 9,4 sobre 10**. Una cifra tras las que se esconden valoraciones cualitativas que van mucho más allá de los datos estadísticos y que hablan de personas que se sienten apoyadas, comprendidas, acogidas en un entorno que comprende su situación. La satisfacción media global de los equipos sanitarios con el programa es de 8,6 y de la formación impartida es de 9,5.

En colaboración estrecha con los equipos médicos, los psicólogos completan la atención que reciben las personas enfermas, tratando los aspectos emocionales que trae consigo la enfermedad, así como los sociales y espirituales. Se consigue así proporcionar un tratamiento global a la persona que mejora su calidad de vida y bienestar.

El servicio que ofrece el Programa para la Atención Integral a Personas con Enfermedades Avanzadas se articula en torno a tres áreas:

- Atención a pacientes y familiares durante la enfermedad, tanto en el hospital como en el domicilio y en las consultas externas
- Atención individual y grupal de seguimiento del duelo
- Soporte emocional y formación a los equipos de profesionales
  Acompañamiento a las personas atendidas, gracias a la colaboración de los voluntarios

## Modelo de atención de los equipos multidisciplinares

A través de un concurso dirigido a organizaciones no lucrativas (fundaciones vinculadas a hospitales y organizaciones del tercer sector), la Obra Social “la Caixa” seleccionó y formó a 29 equipos de apoyo psicosocial (EAPS), que desde enero de 2009 desarrollan el Programa para la Atención Integral de Enfermos Avanzados en toda España y que ya han atendido a **40.424 enfermos avanzados y a 61.170 familiares suyos en toda España.**

Los equipos, que trabajan tanto en el ámbito hospitalario y sociosanitario como a domicilio, son multidisciplinares y están formados por psicólogos, trabajadores sociales, enfermeros y voluntarios.

Las intervenciones de los equipos pueden ayudar a transformar la experiencia del paciente y la familia, para que comprendan que morir bien puede entenderse como la culminación de la vida. En este sentido, **acompañar a las personas con enfermedades avanzadas** es ayudar a pasar de una vivencia pasiva de amenaza y desintegración a una de afirmación, valoración y culminación de la propia existencia.

Un primer estudio promovido por la Obra Social "la Caixa" a nivel Estatal a partir de los primeros años de implantación del programa evidencia la **efectividad del tratamiento psicológico, emocional y espiritual** en cuidados paliativos en lo referente a aspectos como el estado de ánimo, la ansiedad, el malestar, el sufrimiento o el sentido de la vida.

Para más información


**Departamento de Comunicación Obra Social "la Caixa"**
Marina Teixidó: 93 404 40 92 / 608 09 90 23 / mteixido@fundaciolacaixa.es
http://www.lacaixa.es/obrasocial
**Sala de prensa multimedia**
http://prensa.lacaixa.es/obrasocial

**Gabinete de prensa de Matia Fundazioa**
Silvia Turné: 616 11 25 80/ Silvia.turne@matiafundazioa.net